

## EUSKARAZ BURUTZEN DIREN IKASKETAK NAFARROAKO UNIBERTSITATEAN

### LA DOCENCIA EN EUSKARA EN LA UNIVERSIDAD DE NAVARRA

Ana Etxaide

---

Hasi baino lehen eskertu nahi diet Eusko Ikaskuntzaren XII-garren Kongresu honen zuzendariei, txosten hau egiteko eman didaten aukeragatik. Orain 29urte dira, ia 30, hasi nintzela Nafarroako Unibertsitatean euskara irakasten —egia esan, lehenengo urte hartan, hori da, 1964-ean, nere "ikasle" zirenen gutxi haien artean, "irakasle" izan zitezkeenak baziren ere: euskararen gar txiki haura suspertzeagatik joaten baitziren hain zuzen ere. Haien artean, nola ez aipatu adibidez, D. Pedro Diez de Ulzurrun? Ikastaro haiek 1970-eko hamarkadan izan zuten arrakasta haundiena, Iruñean euskal akademiak, gau eskolak etabar sortu eta zabaldu ziren arte.

Barka nazazue, finkatuta dagoen gaiaz momentu batez aldentzen banaiz; baina ezin dut aipa gabe utzi D. Joxe Migel Barandiaran-en eragina, hamasei urte zehar, gure Unibertsitatean eta Nafarroako ikerlanetan. Ez nuke luzatu nahi, bihar izango litzateke eta egun aproposa euskal gaietaz aritzeko, baina bihar ni ez naiz izango hitzun; eta beste meriturik ez ba dut ere, D. Joxe Migel-ek eman zituen ikastaroen lekuko izana naiz, urte haiek aipatzeko.

Zenbat izan ziren D. Joxe Migel-en ikastaroak jarraitu zituztenak 1964-etik 1980 arte? Baliteke oraingo euskal giroan murgilduta gaudelarik, batzuei kopuru haiek kaxkarrak iruditzea. Baina bere ikastaroen eragina nabari daiteke, Nafarroan egin diren ikerlanetan, batez ere Prehistoria eta Etnologiari buruz, D. Joxe Migelek sortu zituen ETNIKER taldeak —Nafarroan lehenengoa, ikastaro haien bidez bildu zuen jendearen artean—. Talde horiek egin duten lana Inkesta Etnografikoa osatuz herriz herri Euskalherri osoan, denok ezagute duzute, agiri bait dago. NAFARROA-ko Taldeak badu bere merituren artean Barandiaran Beka-ren bitartez egindako *Contribución al Atlas Etnográfico de Vasconia*. Investigaciones en Alava y Navarra, 1990, M<sup>a</sup> Amor

Beguriristáin, gaur ETNIKER taldearen idazkari denaren zuzendaritzapean egina eta Eusko Ikaskuntza argitaratua.

D. Joxe Migel izan zen ba, unibertsitateko entzule gazte haiei agertzen ziena Euskalherriko Prehistoriak, ta Etnologiak sortzen dituen galderak. Erantzunen artean, hor daude M. Amor Beguiristain, Enrique Vallespí, José Cruchaga, Gabriel Imbuluzqueta, Melisa Lomax eta beste batzuen ikerlanak.

Sartu gaitezen orain gaur dakarkigun gai barruan: Denok dakizutenez, bi hiritan banatzen dira Nafarroako Unibertsitateak dituen Fakultateak Euskalherrian: Iruñean eta Donostian.

Iruñeari dagokionez, 1976-77-tik hasi genituen Euskararen ikastaroak, Filologia-ren Lizentziatura barnean. Urte haietan onarturik ziren planetan, joan den kurtso arteraino, lehenbiziko zikloa berdina zen espezialitate guzietarako. Filologia Hispanica da guk eskeini izan dugun Lizentziatura bakarra, baina lehenbiziko ziklora etortzen ziren ere, beste Lizentziaturak osatu behar zituzten ikasleak: Filologia ingelesta, klasikoa, etab., baita Euskal Filologia egin nahi zutenak ere. Horrela, lehenbiziko zikloan, bigarren hizkuntza EUSKARA aukeratzen zutenek (3 mailetan), bazuten Euskal Filologia jarraitzeko posibilitatea beste Unibertsitate baten. Hori egin dute, nere ustez, 8 edo 10 ikasleek, Filología Hispánica jarraitu nahi zutenek, berriz, bazuten aukera bigarren hizkuntza bezela, EUSKARA hartzeko, hiru mailetan ere. Halaz ere, esan behar dut, gutxi batzuk izaten zirela urtero, EUSKARA hartzen zutenek. Esango nuke inoiz ez direla izan 5 baino gehiago kurtso berean, eta bai 3 baino gutxiago kurtso batzutan. Gutxi eta maila desberdinetakoak gainera; horregatik ikastaroak moldatu behar ziren bakoitzaren beharretara. Halaz ere, nahiz eta beste asignatura batzuetan, 5 ikasle izan onartzen zen

kopuru txikiena, EUSKARAREN kasuan beti jokatu izan da bere alde. Beti eman izan dira ikastaroak, baita ikasle bakarra izan ere.

Plan berriak iritxi direnez gero, joan den urtean Zuzenbide, Kazetaritza eta Filosofiaren Fakultateetara, aurten beste karreretara, "Euskera"-ren aukera zabaldu egin da, karrera guztietara, "Asignaturas de Libre elección" direlako bidez. Joan den urtean 17 ikasle, aurten 40 inguru izan ditugu; hori bai, maila desberdinak. Hori ikusita, datoren urterako programa berri bat egiteko asmoa dugu, baina ez naiz orain hortaz mintzatuko, bihar hitzegin behar bait dize Unibertsitateko Errektoreorde den Jose M<sup>º</sup> Bastero Jaunak.

Plan zaharretan ere izan dugu beste ikastaro bat, plan berrietan jarraituko duguna. "Lingüística Vasca" izenpean, Filología Hispánica-ren 5 garren kurtsoan ematen dena. Euskaldunak ez izanik ere, nahikok aukeratzeko dute ikastaro hau bi arrazoigatik batez ere: alde batetik, euskararen historia eta ezaugarriak ezagutzeko daramalako, eta bestetik hizkuntza erromanikoekin kontrastatuz, Lingüística Orokorriari dagozkien problema interesgarriak sortzen direlako.

Donostian, Unibertsitateak baditu bi zentro: I.S.S.A. (Instituto Superior de Secretariado y Administración) eta Goi Mailako Injineru Eskola.

Lehenbizikoan "Euskara" irakasten hasi zen 1980-81 kurtsoan, Euskal Autonomi Elkartearen ikasle direnentzat beharrezko ikastaroa delarik. Amahiru urteotan izugarriko aurrerapena nabaritu da ikastaro hauen kalitatean. Bost mailetan irakasten da euskara, hiru urte irauten duen karrera honen zehar. Eta gainera "Euskara Komertziala" (sektore pribatua, ofiziala, itzulpena, etab.). Denean 32 klase astean.

Karrera bukaerako lanak orain arte, gutxi gora behera, 70 egin dira euskaraz. Tituloen artean: "Berziklaketa", "Europako Herrialdeak", "Euskal Nazionalismoa", "Haur eta Gazteen Literatura", "Zinearen Historia", "Urolako trenak", etab.

Goi Mailako Injineru Eskolan orain lau urte hasi ziren "Metalurgia"-ren ikastaroak euskaraz ematen. Orain, euskarazko taldeak 70 bat ikasle ditu, kurtso osoaren herena, gutxi gora behera. J.M. Rodríguez Ibabe izan zen bide erekitzaile eta orain bi irakasle dira "Metalurgia" ematen dutenak, bakoitzak bi taldeei, euskeraz eta erderaz.

Euskarazko ikastaro horien fruitu izan da Rodríguez Ibabe-k joan den urtean argitaratutako testu liburua "Altzairuen diseinurako metalurgia fisikoa" (Elhuyar-Elkar, 1992). Baina lehenik argitaratuta zituen beste bi: "Materialien portaera elastikoa eta plastikoa" (Elhuyar-Elkar 1988) eta "Austuraren mekanika" (Elhuyar-Elkar 1991).

Badirudi euskal taldea indar hartzen ari dela Injineruaren Goi Maila Eskolan, eta poliki poliki beste asignaturak ere hasiko direla bi taldetan zaitzen, irakasle euskaldunak sortuko diren neurrian. Ikasleentzat, gipuzkoarrak bereziki, gero eta prestaera hobearrekin datozela hizkuntzaren ezagutasunaren aldetik, esan behar.

Euskaraz idatzitako Doktoradutza Tesiak ere, esan dezaket, ugartzen ari direla. Apal xamar hasi ziren: Lehenbizikoa 1979-an (Nazabal), bigarrena 1984 (Rodríguez Ibabe); 1992-an berriz hiru izan dira: Fisikariak bi (K. Ostolaza eta I. Urrutibeaskoa) eta Injineru batena (A. Tapia). Egun hauetan aurkeztu beharra dago beste bat, B. López, fisikariena. Esan daiteke oraingo egoerari dagokionez, urtean euskaraz tesi bat ateratzeko posibilitatea badagoela. Nafarroako Fakultateetan, berriz, tesi bakar bat egin da euskeraz Medikuntza

Fakultatean, donostiar batek aurkeztua. Aurkezpenak elebikoak izaten dira.

Voy a procurar hacer un pequeño resumen de cuanto he dicho hasta ahora:

No puedo dejar de hacer mención, por gratitud y homenaje, a la docencia de D. José Miguel de Barandiarán en la Universidad de Navarra entre los años 1964 y 1980. Lo hago aquí porque mañana, cuando tratemos de "Estudios vascos en la Universidad", no voy a ser yo —que tuve la suerte de conocer aquella época tan entrañable— quien tome la palabra.

Los años que enseñé y trabajé con algunos de los que hoy son profesores en nuestra Universidad y también en otras, marcó una impronta. En aquellas conversaciones con el maestro surgió también el primer grupo ETNIKER, el de Navarra, que hoy dirige la profesora M<sup>º</sup> Amor Beguiristáin, que sigue manteniendo la llama de los estudios de Etnología, con tan poca presencia en las enseñanzas universitarias.

Junto a estas enseñanzas e investigaciones, empecé a impartir las primeras clases de euskara en 1964. No se si podía considerarme exactamente profesora o discípula, pues el anhelo de que estas enseñanzas tuvieran éxito y continuidad llevó a alguna persona, mejor conocedora que yo del euskera, como podía ser D. Pedro Díez de Ulzurrun, a asistir, como alumno, a mis clases. Las clases continuaron con el profesor Basterrechea en el año 1970 y en los años siguientes se llegó a la cifra máxima de alumnos, alrededor de unos 200. Después, con la apertura de otros centros de enseñanza de euskara en Pamplona, y la implantación del EGA, la demanda disminuyó notablemente.

La Facultad de Filosofía y Letras había aprovechado un cambio en los planes de estudios de Filología para implantar tres niveles de Lengua Vasca que permitían realizar la Licenciatura de Filología Vasca. Siempre fueron muy escasos —se contaban con los dedos de una mano— los alumnos que tomaron esta opción, pero fue la manera en que algunos alumnos pasaron a otra Universidad de Euzkalerria a cursar Filología Vasca.

Los nuevos planes de estudios que han empezado en el curso pasado para algunas carreras y en este curso 1993-94 para el resto, abren nuevas posibilidades a los estudios vascos, de las que se hablara en la sesión de mañana.

Como saben, la Universidad de Navarra cuenta con dos centros en San Sebastián: ISSA (Instituto Superior de Secretariado y Administración) y la Escuela Superior de Ingenieros Industriales.

ISSA desde 1980 cuenta con 5 grados de enseñanza de euskara más un "Euskara Comercial" (correspondencia sector privado y oficial, traducción, etc.), en total 32 clases semestrales. Unos 70 entre los trabajos de fin de estudios se han realizado en euskara sobre temas tan diversos como: "Indar S.A. 50 urte", "Gernika 37-87", "Europako Herrialdeak", "Euskal Mitologia", "Urolako Trenak", etc.

En la Escuela Superior de Ingenieros este es el cuarto año en que una de las asignaturas fundamentales de la carrera, "Metalurgia", se explica en euskara a uno de los grupos, que hoy, con 70 alumnos, viene a representar una tercera parte del total de los alumnos del curso. Habiendo empezado el prof. Rodríguez Ibabe como pionero en este curso, hoy son dos profesores los que se reparten la asignatura y la explican tanto al grupo euskaldun como al de español. Poco a poco parece que se van afianzando el grupo euskaldun, sobre

todo porque los estudiantes llegan a la Universidad con una mejor preparación en euskara. También es de esperar que vayan surgiendo de esta cantera profesores capacitados para impartir nuevas asignaturas en euskara.

La experiencia adquirida con estas clases ha dado como fruto la publicación en 1992 de un libro de texto, "Altzairuen diseinurako Metalurgia fisikoa", editado por Elhuyar-Elkar, aunque ya el mismo autor, Rodríguez Ibabe, había publicado otros dos en euskara en 1988 y 1991.

También van siendo más frecuentes las Tesis Doctorales escritas y presentadas en euskara. La primera es de 1979 y la segunda de 1984; pero ya en 1992 se han leído tres, dos de ellas de Titulados en Física y estos días se ha leído otra. De momento parece que hay posibilidad de que se vayan presentando con cierta continuidad, al menos una cada año. En las Facultades de Pamplona se ha leído una en Medicina, de una donostiarra.